

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Nafar mirailaren pieza-puska anitzak

Musika ibilaldia Nafarroan barna.

Interpretatzailea: Iruñeko Katedraleko Musika Kaperak.

NAFARROAN BARNAKO MUSIKA IBILALDIA egitera gonbidatu nahi zaitut. Ziur ez naizela pertsona egokiena gonbite hau egiteko. Bizitzaren harat-honatekoek ematen dizkiguten ustekabeek ausartak bihurtzen gaituzte ordea. Horratx zoria!

Fermin Erbiti idazlearengana hurbildu nintzen Iruñera, eta Nafarroako Comptos Ganbera ezagutzea izan zen nire lehen ustekabea, eta Ferminen eskutik ezagutzea zoria. Hori gutxi bailitzan, opari honekin etxeratu nintzen: *Musika ibilaldia Nafarroan barna*. Halaxe du grazia CDak. Iruñeko Katedraleko Musika Kaperak joa da. Nafarroako musikaren pieza puska bitxiak biltzen ditu. XIII. mendetik eta XX. mendera arteko 21 kanta, *comptoa* zehatz eginda.

CDari buruzko bi zertzelada eskaini aitzin, azal dezadan zer den Nafarroako Comptos Ganbera: “Espainiako Estatuko kontu epaitegirik zaharrena da. Karlos II. nafar erregeak sortu zuen 1365ean Erresumaren egoera ekonomiko latza konpontzeko asmoz. XIX. mendean Nafarroako Erresuma espainiar probintzia bihurtu zen. Comptos Ganbera galdu zuen, hainbat eskumenekin batera. 1836ko dekretu batek erakundea desagerrarazi zuen. Comptos Ganbera 140 urte baino gehiago itxita egon zen. 1980an Nafarroako Parlamentuak erakundea berriro martxan jartzeko erabakia hartu zuen”.

Pieza bitxiak direla aipatu dut. Bai horixe. Lehen kantak *Goizean diru kontaktzen* izena du. Baraibar-koa da, XVIII. mendekoa. Comptos Ganberari kontu eta kantu egiten dizkio: “Goizean diru kontaktzen,/ arratserako gastatzen,/ bazkari ona jokatzan,/ kafea



Nafarroako Comptos Ganbera.

hartuz,/ kopak edanez,/ edari finak garbitzen:/ Egnik ez dut ukatzen./ Orain ezpainak nekatzen,/ sardin ederrez betetzen”. Honela kantatzen du Kaperak, Aurelio Sagaseta zuzendariaren batutapean. Kantarik zaharrena, Teobaldo I.a erregearen *Seigneurs, Sachiez* da; 1239 urtekoa. Berrienak, berriz, XX. mendekoak dira, Fernando Remacha, Pascual Aldabe eta Emiliana Zubeldia musikagileenak.

Nafarroaren aniztasunaren isla da diskoa. Comptos Ganberaren 25. urteurrena kari obratua. Kantetako bost euskaraz dira, lau latinez, hiru gaztelaniaz, bat frantsesez, gainerakoak instrumentalak.

Baraibarko *Nere maitiaren* hitzok atxiki ditugu buruan guk: “Nere maitia, ez egon sustoz,/ biziko gera munduan gustoz:/ palazio bat eginen dugu/ sekalez edo lastoz:/ balkona ere basalizarrez,/ teilatua belar igitzez,/ hala, goizean enkargatu da/ Baionako Pierres”.

Kantaren hotsa –doinua– zure kontu, akort? ■



TALLERES
MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com